

P2025

**Uraren ziklo integrala kudeatzeko hornidura
eta saneamendu azpiegiturretan inbertsioak
egiteko programa**



TXINGUDIKO ZERBITZUAK
SERVICIOS DE TXINGUDI

JARDUERA ILDO ESTRATEGIKOAK



Edateko **uraren horniduraren bermea indartzeko** zerbitzuaren kalitatea eta fidagarritasuna hobetzeko inbertsioak.




Dauden hiri **saneamendu eta drainatze sistemak osatzeko** eta optimizatzeko eta uholde arazoak saihesteko inbertsioak, eta baita euri garaietan sortutako kutsadura murrizteko ere, ur masen egoera ekologiko egokia lortu ahal izateko.




Ondoko arrazoi hauetako edozeinengatik zaharkituak gelditu diren **instalazioen berrikuntza tekniko eta hobekuntza** funtzionalerako inbertsioak:

- erabilpenengatik gastatu izateagatik.
- teknologia berriak, hobeak eta eraginkorragoak agertu izanagatik.
- osasun eta ingurumen eskakizun zorrotzagoak izateagatik



Kudeaketa Integral eta Eraginkorrean aurrera egiteko eta garatzeko inbertsioak, ingurumenaren eta **uraren hiri zikloaren iraunkortasunaren** ikuspegitik begiratuta.



Dauden baliabideekin **energiaren sorrera optimizatzeko** inbertsioak

JARDUERA ESPARRUA

URBILKETA ETA GARRAIOA

Helburuak

- Herritarrei hornidura ziurtatzea.
- Dauden azpiegiturak (Domiko, Endara, Kanala) berritzea.
- Larrialdi eta Segurtasun Planak ezartzea.



TRATAMENDUA ETA ARAZTEA

Helburuak

- Isurketa baldintzak betetzea.
- Elordiko EUTPren funtzionamendu egokia ziurtatzea.
- Atalerrekako HUaren funtzionamendu egokia ziurtatzea.
- HUPPen funtzionamendu egokia ziurtatzea.



HORNIDURA ETA BANAKETA

Helburuak

- Erregulazio deposituak berritzea.
- Adar nagusien sarearen funtzionamendua osatzea eta ziurtatzea.
- Fibrozementuzko hodiak aldatzea.
- Landa eremuetan banaketa bermatzea.



HIRI SANEAMENDUA ETA DRAINATZEA


Helburuak

- Leku kritikoetan uholde arazoak saihestea
- Euri garaietako isurketei buruzko 1290/2012 Errege Dekretuaren eskakizunak betetzea
- Sarearen funtzionamendua optimizatzea haren modelizazioaren eta kontrolaren bidez
- Sare osoan euri urak eta ur beltzak bereizteko sistema ezartzea
- Egoera txarrean dauden hodiak berritzea

NEURKETA ETA KONTROLA

Helburuak

- Eskariaren kudeaketa eraginkorrean aurrera egitea
- Teleagingailu sistema zaharkituak eguneratzea
- Sareetako neurketa eta kontrol sistemak optimizatzea
- Neurketa parkea eguneratzea



ENERGIA

Helburuak

- Dauden baliabideekin energiaren sorrera optimizatzea
- Dagoen makineria berritzea eta optimizatzea





1.- SARRERA

Txingudiko Uren Mankomunitatea IRUNGO eta HONDARRIBIKO hirietako ur eta saneamendu zerbitzuaren kargu egin zen 1990ko urtarrilaren 1ean.

Une hartatik aurrera, helburu batzuk planteatu zituen ur eskariei erantzuteko eta hondakin urak kanporatzeko, jasotzen dituen inguruneari kalterik eragin gabe. Era berean, Plan bat egin zen jarritako helburu hori bermatu ahal izateko obra hidraulikoen programak bideratzeko.

Horretarako, “Behe Bidasoa eskualdeko Ur Hornidura eta Saneamendu Plana” izeneko Plana idatzi zuen, 1993. urtean onartu zena, eta Goi sarean ur hornidura eta saneamendua ziurtatzeko egin beharreko jarduerak finkatu eta programatu ziren hartan.

Obra horiek guztiak egin eta abian jarri ondoren, esan zitekeen bukatu zirela Planean aurreikusitako obrak, eta horrenbestez, bete egin ziren halaber, 1993. urtean onartutako Behe Bidasoa eskualdeko Ur Hornidura eta Saneamendu Planean jasotako helburu nagusiak.

Txingusiko Zerbitzuak S.A.k, egoera horren aurrean, eta bere sareetan inbertsioak egiteko beharra zegoela ikusita, “2005-2015 Inbertsioen Hamar Urteko Plana” egiteko beharra planteatu zuen. Etorkizunean premiazkoenak ziren esku hartzeen inbentarioa egingo zen bertan, hartan oinarrituta, ur hornidura, banaketa eta saneamendu sareetan egin beharreko inbertsio berrien planifikazioa eta programazioa gauzatu ahal izateko.

Horretan oinarrituta, hamar urtetan egin beharreko esku hartzeen inbentarioa egin zen, haietako bakoitzari begira beharreko programazioa eta lehentasun maila ezarrita.

2004. urtean onartu zen arestian aipaturiko “2005-2015 Inbertsioen Hamar Urteko Plana”. 56.705.000 €-koa (BEZik gabe) zen haren aurrekontua eta 30 esku hartze jasotzen zituen.

Aipaturiko Plan horren irismen denboraldia bukatutakoan, haren betetze mailaren txostena egin da, eta honako emaitza hauek eskuratu dira:

1) % 73ko Betetze Maila Esku hartze kopuruaren arabera

- Proiektaturiko esku hartze kop. = 30
- Gauzatutako esku hartze kop. = 22

2) % 64ko Betetze Maila Esku hartzeen zenbatekoaren arabera

- Proiektaturiko esku hartzeen zenbatekoa = 56.705.000 €
- Gauzatutako esku hartzeen zenbatekoa = 36.377.288 €

Gauzatu ez diren aurrekontuko esku hartze garrantzitsu gisa aipatzekoak dira Hondarribiko iparraldeko behe ibarrak drainatzea (Itsasargira doan errepidearen eremuan eta hiriguneko ipar-mendebaldean) eta Guadalupeko deposituaren eta landa eremuaren hornidura eta banaketa.



Egoera honen aurrean eta aurreikusi bai baina gauzatu ez diren esku hartzeak egiteko eta instalazioak egungo eskarrietara egokitzeko inbertsio berriekin jarraitzeko beharraren aurrean, Txingudiko Zerbitzuak, **“URAREN ZIKLO INTEGRALA KUDEATZEKO HORNIDURA ETA SANEAMENDU AZPIEGITURETAN INBERTSIOAK EGITEKO PROGRAMA”** berria idaztea planteatzen du, bertan jasotzeko datozen hiru hiru urtekoetan egin beharreko esku hartzeen inbertarioa, 2025. urtea muga urte gisa jarrita. Hartan oinarrituta planifikatu eta programatu ahal izango dira ur bilketan, tratamenduan eta arazketan, horniduran, saneamenduan, hiri drainatzean, neurketan eta kontrolean eta energiaren alorrean egin beharreko inbertsio berriak.

Irun, 2016eko azaroa

Portu, Ubide eta Bideen Injinerua

Pedro Lapazaran Izargain
AHOLKULARIA

Ingenieru Zibila

Josean Rodrigo Poblador
SARE ETA OBRA
DEPARTAMENTUKO BURUA



LEHENTASUNEN ARABERAKO EZKU-HARTZEAK

OSO HANDI, HANDI ETA HANDI-ERTAIN LEHENTASUNEN ESKU-HARTZEAK

ESKU-HARTZEAK		AURREKONTUA	LEHENTASUNA
UR BILKETA ETA GARRAIOA			
1	DOMIKOKO URTEGIA BERRITZEA	550.000	HANDIA
2	ENDARAKO URTEGIKO INSTALAZIO TEKNIKOAK BERRITZEA	160.000	HANDIA
3	DOMIKOKO KANALA IRAGAZGAITZ BIHURTZEA	250.000	HANDIA
HORNIDURA			
12	IPARRAGIRRE BEHEKOA DEPOSITU BERRIA	1.100.000	OSO HANDIA
13	IBAIETAKO ADAR NAGUSIA BERRITZEA	480.000	HANDIA
14	IRUN ETA HONDARRIBIKO BANAKETA SAREAK ELKARTZEA	250.000	HANDIA
15	IPARRAGIRRE GOIKOA DEPOSITUA BERRITZEA	800.000	HANDIA
16	URA BANATZEKO ADAR ZATIA ARABA KALEAN	270.000	HANDIA ERTAINA
17	GUADALUPEKO HORNIDURA ETA DEPOSITUA ETA LANDA EREMUKO BANAKETA SAREA	2.300.000	HANDIA ERTAINA
SANEAMENDUA			
20	ANAKAKO SANEAMENDUAREN ERABERRITZEA	300.000	OSO HANDIA
21	SANTA ENGRAZIAKO KOLEKTOREA	420.000	HANDIA ERTAINA
HIRI DRAINATZEA			
27	HONDARRIBIKO IPARRALDEKO BEHE IBARRAK DRAINATZEA: HIRIGUNEKO IPAR-MENDEBALDEA	7.600.000	HANDIA
28	EGUZKITZAKO KOLEKTOREA	700.000	HANDIA
29	EMARIEN KONTROLA HODI BILTZAILEAN	600.000	HANDIA
30	IBILGUETARA DOAZEN HUSTUBIDEEN ETA ISURKETEN KONTROLA	500.000	HANDIA
31	SARGIA PARKEKO DESKARGA KOLEKTOREA	300.000	HANDIA ERTAINA
ENERGIA			
38	DOMIKOKO URTEGIRA DOAN KARGA HODIA ETA FRANCIS MULTZO HIDRAULIKOA BERRITZEA DOMIKOKO Z. H.	180.000	HANDIA
		16.760.000	

OSO HANDIA	1.400.000
HANDIA	12.070.000
HANDIA-ERTAINA	3.290.000
	16.760.000



ERTAIN MODUKO LEHENTASUNAK

ESKU-HARTZEAK		AURREKONTUA	LEHENTASUNA
UR BILKETA ETA GARRAIOA			
4	LOTURA ENDARA - DOMIKOKO KANALA	400.000	ERTAIN
5	BERRITZE ETA HOBKUNTZA LANAK JAIZKIBELGO UR BILTZEETAN	300.000	ERTAIN
TRATAMENDUA ETA ARAZKETA			
7	ATALERREKAKO H.U.A. EGOKITZEA	4.000.000	ERTAIN
HORNIDURA			
18	ERRANDONEAKO DEPOSITUA BERRITZEA	700.000	ERTAIN
SANEAMENDUA			
22	RAMON IRIBARREN PASEALEKUKO SANEAMENDUA	1.460.000	ERTAIN
23	DUNBOA AUZOKO SANEAMENDUA	2.300.000	ERTAIN
HIRI DRAINATZEA			
32	HONDARRIBIKO IPARRALDEKO BEHE IBARRAK DRAINATZEA: ITSASARGIRA DOAN ERREPIDEAREN EREMUA	5.500.000	ERTAIN
33	EURI URAK GELDIARAZTEKO DEPOSITUAK	600.000	ERTAIN
NEURKETA ETA KONTROLA			
34	ESKARIAREN KUDEAKETA	400.000	ERTAIN
35	TELEAGINGAILU EKIPOAK ETA PROGRAMAZIOA ALDATZEA	420.000	ERTAIN
ENERGIA			
39	HOBKUNTZA ENERGETIKORAKO PROZESUAK HORNIDURAN ETA SANEAMENDUAN	155.000	ERTAIN
40	ENERGIA BERRISKURATZEA HORNIDURA DEPOSITUETAN SARTZEN DEN EMARIAREN ERREGULAZIOAN	510.000	ERTAIN
41	IRUGURUTZETAKO ZENTRAL HIDROELEKTRIKOKO ERAIKINA BERRITZEA	550.000	ERTAIN
		17.295.000	

LEHENTASUN TXIKIKO ESKU-HARTZEAK

ESKU-HARTZEAK		AURREKONTUA	LEHENTASUNA
UR BILKETA ETA GARRAIOA			
6	DOMIKOKO KANALA ESTALTZEA	500.000	TXIKIA
TRATAMENDUA ETA ARAZKETA			
8	KONPONTZE ETA HOBKUNTZA LANAK AMUTEKO HONDAR PLANTATIK SOLIDOAK ATERATZEKO	40.000	TXIKIA
SANEAMENDUA			
24	MENDELUKO SANEAMENDUA: ZUBIETA HIRIBIDEA/ZUBI-MUSUKO BIRIBILGUNEA	150.000	TXIKIA
ENERGIA			
42	HOBKUNTZAK IRUSTAKO ZENTRAL HIDROELEKTRIKOKO MAKINERIAREN ERRENDIMENDUAN	490.000	TXIKIA
		1.180.000	



JARRAITUA

ESKU-HARTZEAK		AURREKONTUA	LEHENTASUNA
UR BILKETA ETA GARRAIOA			
9	HOBEKUNTZA LANAK ATALERREKAKO H.U.A.n (OBRA ZIBILA ETA AKTIBOAK)	580.000	JARRAITUA
10	HOBEKUNTZA LANAK ELORDIKO E.U.T.P.n (OBRA ZIBILA ETA AKTIBOAK)	370.000	JARRAITUA
11	BERRITZE LANAK HONDAKIN URAK PONPATZEKO PLANTETAN	595.000	JARRAITUA
Abastecimiento			
19	URA BANATZEKO SARE NAGUSIA BERRITZEA	3.000.000	JARRAITUA
Saneamiento			
25	ZANGARIK GABEKO BERRITZE LANAK ESKUALDEAN	480.000	JARRAITUA
26	SANEAMENDUKO SARE BERRITZEA	3.600.000	JARRAITUA
Medición y Control			
36	BANAKETA SAREAREN SEKTORIZAZIOA HOBETZEA	500.000	JARRAITUA
37	KONTAGAILU PARKEA ETA TELEIRAKURKETA	1.800.000	JARRAITUA
		10.925.000	



ESKUHARTZE FITXAK

DOMIKOKO URTEGIA BERRITZEA

JARDUERA ESPARRUA

Ur bilketa eta garraioa

GARAPEN MAILA

Eginda daude ikuskatze eta aztertze lanak

KALKULATUTAKO AURREKONTUA


550.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatzeko beharrik

LEHENTASUNA

HANDIA



AZALPENA

Arro berekoak dira Domikoko urtegiak biltzen dituen urak eta uraz beheiti dagoen Endarako (San Anton) urtegia hornitzen duten urak.

Irungo eta Hondarribiko herritarren hornidura osatzeko erreserba gisa eta Domikoko eta Irugurutzetako zentraletan argindarra ekoizteko erabiltzen dira Domikoko urtegiak bildutako urak. Bigarren erabilera hori ematen zaie urei soilik herritarrek hornitzeko xedean urtegiak duen helburu nagusia betetzen denean.

Aldi berean, urtegi honetako instalazioak San Anton urtegitik bideratzen den hornidura sendotzeko baliatu daitezke, edo larrialdi egoeretan, beste hornidura bat bermatzeko.

Domikoko urtegiak aspaldidanik dauzka arazoak itxurako egituraren, arazo horiek uraz goitiko paramentuko pantailan barrena gertatzen diren iragazketek eraginda daude, iragazketa horiek material finak eraman baitituzte berekin batean harrizko dikean.

Behin Domikoko urtegiari buruz dagoen informazioa aztertu eta gero, bistan da esku hartu beharra dagoela, izan ere, konponketa handi baten premian dago.

Urtegiaren bizkarraldearen jatorrizko formaren eraldatzearekin eta estankotasunarekin zerikusia dute urtegi honetako arazo nagusiek. Hondatuta dago uraz goitiko ezpondaren gainean antolatutako hesi iragazgaitza (mintz asfaltikoz, hormigoiz eta beste elementu batzuek osatua), eta

ura iragazten da urtegiaren egiturak harrizko mazizoarekin elkartzen diren puntuetan.

San Anton urtegiko egituraren segurtasuna estu lotuta dago pantailaren portaera hidraulikoarekin eta lur eremuarekin uztartzeko erarekin, eta beraz, bi arlo horietan jardun beharra dago.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Lan hauetan estankotasun elementu batez hornituko da urtegia, urtegiko uraz goitiko ezpondaren gainean egokituko da. Bestalde, zimentarrian bermatutako zokaloa sendotuko da.

Urtegiaren segurtasuna eta egonkortasuna sendotzeko komenigarria litzateke uraz behitiko oinetan drainatzeko gaitasuna izango duen beste harrizko oin bat eraikitzea.

OHARRAK

--

ENDARAKO URTEGIKO INSTALAZIO TEKNIKOAK BERRITZEA

JARDUERA ESPARRUA

Ur bilketa eta garraioa

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

160.000 euro (BEZik gabe)

ADMINISTRAZIO TRAMITAZIOA

Ez dago lurrak kudeatzeko beharrik

LEHENTASUNA

HANDIA

AZALPENA

Endarako urtegiko zirkuituak nahiz sistema elektrikoko atalak 80. urteen amaierakoak dira, eta horrenbestez, gaur egun oso zaharkituak daude eta ez dituzte betetzen aplikatu behar zaizkien azken segurtasun araudiak.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Endarako urtegiko atalak eta zirkuitu elektrikoak berrituko lirateke obra honetan, hauxe da, koadro elektriko orokorra eta argi eta indar ekipoak. Era berean, balbulen maniobra mahaletako automatismo elektrikoak eta olio-hidraulikoak berrituko lirateke, hala hornidura hodian nola urtegiko deskargetan, dauden bi giltza ganberetan. Bestalde, PLCak ere berrituko lirateke, jada deskatalogatuak baitaude, eta horren ondorioz, konponketa lanak zailak baitira, garestiak izateaz gainera.

OHARRAK

--



DOMIKOKO KANALA IRAGAZGAITZ BIHURTZEA

JARDUERA ESPARRUA

Ur bilketa eta garraioa

GARAPEN MAILA

Egiten ari den obra, zatika

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

250.000 euro (Lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatzeko beharrik

LEHENTASUNA

HANDIA



AZALPENA

Behe Bidasoako Hornidura eta Saneamendu Planak aurreikusitakoaren arabera, Domikoko kanala Eskualdeko ur hornidura bermatzeko aukerako eroaleetako bat izango da. Une honetan Endara-Domiko sistemako hornidurarako erreserbaren ur soberakinak garraiatzeko erabiltzen da Irugurutzetako Zentralean argindarra sortzeko. XX. mende hasierakoa da azpiegitura hori, mazelaren erdialdean egokitutako ubide estali gabea da, trapezoidearen formako sekzioarekin, eta grabitateak eraginda jaisten da ura. Aspaldikoa delako eta trazadurak berak mantentze lanak zailtzen dituelako, ur jario txiki ugari daude haren trazaduran, eta konpondu behar dira horiek. Bestalde, oso zaila zen azpiegitura hori behar bezala zaintzea eta kontrolatzea.

Horregatik guztiagatik kanala iragazgaitz bihurtzea planteatu zen, eta egokiera aprobetxatzea kanala estaltzeko eta haren gainean, egungo trazaduraren gainean, igarobide bat itxuratzeko eguneroko zaintza lanak errazteko eta kanalera behar ez diren elementuak (harriak, lurrak, adarrak, etab.) ez iristeko.

Azken urte hauetan obra horiek egiten joan dira eta une honetan gutxi gorabehera 3 kilometro gelditzen dira iragazgaitzeko kanalak zeru irekian duen 12 kilometroko luzeratik.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra honetan kanalaren barruko sekzioa estaliko duen poliuretanozko geruza zabalduko da edo iragazgaitzeko produktua ezarriko da ur jarioak desagerrarazteko.

OHARRAK

--

LOTURA ENDARA - DOMIKOKO KANALA

JARDUERA ESPARRUA

Ur bilketa eta garraioa

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA


400.000 euro (Lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatzeko beharrik

LEHENTASUNA

ERTAINA



AZALPENA

Behe Bidasoako Hornidurak Endarako urtegia du iturri nagusi. Endaratik eta 600 mm-ko diametroa duen ur hornidurarako hodiaren bidez ("ur ekarlea" deritzo) EUTPra bidaltzen da ura. Hodi horren trazadura mazelaren erdialdean antolatuta dago, zatirik handienez oso malkartsuak diren ibarbideetan barrena luzatzen da, eta beste zati batean gara bateko meategiko galeria bat baliatzen duen tunel batean zehar.

Funtsezkoa da azpiegitura hau, matxuraren bat gertatuz gero, edo hodia hautsiz gero, edo mazelan luiziak jazoz gero, edo tunelaren barruan harriak behera etorritz gero, zailak lirakeelako konponketak oro, izan ere, irisgarritasun eskasak eta kokalekuak berak izugarri zailduko lituzkete berehalako konponketak.

"Ur ekarlea" deritzona baino lehenago eraiki zuten urtegia, eta "ur ekarlea" hori eraikitzen ari ziren bitartean eskualdeko herritarrei urez hornitu ahal izateko ponpaleku bat eraiki zuten Endarako urtegian, eta burdinurtuzko bi hodiaren bidez urak eramaten zituen Domikoko kanaleraino. Ubide horrek Arrizurretako deposituraino eramaten ditu urak, eta puntu horretatik garai hartan zegoen hornidura sarearekin egiten zuen bat.

Orain gutxi lan batzuk eraman dira burura Arrizurretako deposituko ura hurbil dagoen hornidurarako "ur ekarlearen" hodira bultzako. Horrenbestez, "ur ekarlean" "by-pass" baten egitekoa betetzen du Domikoko ubideak

urtegiaren eta Arrizurretako deposituaren artean, eta bermatu egiten du uraren hornidura "ur ekarlean" matxuraren bat gertatuz gero.

Urtegiaren oineko ponpalekua zaharkituta dago sistema hori baliatu ahal izateko eta larrialdi egoera batean herritarrak uraz hornitzeko.

Larrialdi egoera batean "by-pass" sistema horrek "ur ekarlean" bete dezakeen egitekoa funtsezkoa izan daitekeenez, eta ponpalekuko instalazioen egoera kaskarra kontuan izanik, behar-beharrezkoa da instalazioak berritzea ura Endarako urtegitik Domikoko ubideraino ponpatu ahal izateko.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Ponpalekuko instalazioak eta ekipoa berrituko dira, segundoko 200 litroko ur emaria ponpatzea baita helburua.

OHARRAK

--

BERRITZE ETA HOBEKUNTZA LANAK JAIZKIBELGO UR BILTZEETAN

JARDUERA ESPARRUA

Ur bilketa eta garraioa

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

300.000 euro (Lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatzeko beharrik

LEHENTASUNA

ERTAINA



AZALPENA

San Antongo urtegia, iturburuetako azalerako ur biltzeak eta Jaizkibelgo iparraldeko mazelako putzu berriak dira Txingudi sistemako hornidura iturriak.

Iturburuek segundoko 70 litroko baliabidea ziurtatzen dute gutxienez, baina urtearen gehiengoa segundoko 90 litrotik gora ematen dituzte, horiek izanik lehen hornidura aukera San Antonen bildutako ur kopurua jaisten hasten denean.

Ura biltzen eta garraiatzen duten instalazioak behar bezala mantendu eta ahal den neurrian hobetu egin behar dira haien hornidura gaitasuna optimizatzeko.

Azken urte hauetan obra horiek egiten joan dira eta une honetan gutxi gorabehera 3 kilometro gelditzen dira iragazgaizteko kanalak zero irekian duen 12 kilometroko luzeratik.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Azpiegituran bertan nahiz hartako ponpatze ekipoetan, instalazio elektrikoetan eta telekontrollean eramango dira aurrera berritzeko eta hobetzeko lanak.

OHARRAK

--

DOMIKOKO KANALA ESTALTZEA

JARDUERA ESPARRUA

Ur bilketa eta garraioa

GARAPEN MAILA

Egiten ari den obra, zatika

KALKULATUTAKO AURREKONTUA


500.000 euro (Lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatzeko beharrik

LEHENTASUNA

TXIKIA



AZALPENA

Behe Bidasoako Hornidura eta Saneamendu Planak aurreikusitakoaren arabera, Domikoko kanala Eskualdeko ur hornidura bermatzeko aukerako eroaleetako bat izango da. Une honetan Endara-Domiko sistemako hornidurarako erreserbaren ur soberakinak garraiatzeko erabiltzen da Irugurutzetako Zentralean argindarra sortzeko. XX. mende hasierakoa da azpiegitura hori, mazelaren erdialdean egokitutako ubide estali gabea da, trapezoidearen formako sekzioarekin, eta grabitateak eraginda jaisten da ura. Aspaldikoa delako eta trazadurak berak mantentze lanak zailtzen dituelako, ur jario txiki ugari daude haren trazaduran, eta konpondu behar dira horiek. Bestalde, oso zaila zen azpiegitura hori behar bezala zaintzea eta kontrolatzea.

Horregatik guztiagatik kanala iragazgaitz bihurtzea planteatu zen, eta egokiera aprobetxatzea kanala estaltzeko eta haren gainean, egungo trazaduraren gainean, igarobide bat itxuratzeko eguneroko zaintza lanak errazteko eta kanalera behar ez diren elementuak (harriak, lurrak, adarrak, etab.) ez iristeko.

Azken bi urteetan halako lanak egin dira, eta une honetan kanalak dituen 12 kilometroetatik 4 kilometro falta dira lanak amaitzeko. 3. fitxan kanala iragazgaitz bihurtzeko lanak aurreikusi dira, eta honetan kanala estaltzeko lanak.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Hormigoizko lauza txiki batzuk jarriko dira kanaleko hormaren gailurren lerroaren gainean.

OHARRAK

--

ATALERREKAKO H.U.A EGOKITZEA

JARDUERA ESPARRUA

Ur bilketa eta garraioa

GARAPEN MAILA

Aztertzen

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

4.000.000 euro (BEZik gabe)

ADMINISTRAZIO TRAMITAZIOA

Beharrezkoa da

LEHENTASUNA

ERTAINA

AZALPENA

1998. urtean esleitu ziren Atalerrekako HUA eraikitze proiektuaren erredakzio eta gauzatze lanak, eta 2004. urtean jarri zen abian instalazio hori. Aurreikuspenen arabera, itsaso zabalera ematen duen Euskal kostaldeko itsasbazter osoa “inguru ez hain kaltebera” gisa izendatu zen. Horretan oinarrituta, karga handiko tratamendu biologikoa egitea erabaki zen, hasiera batean bederen nahikoa 271/91 Zuzentaraua betetzeko eta “ez hain kaltebera” gisa izendatutako inguruetara isurketak egiteko. Lortu beharreko emaitzak ziren 60 mg/l Solidoak igerian eta 60 mg O₂/l de DBO₅ tratatutako efluentean.

osoa “inguru ez hain kaltebera” gisa izendatu zen. horretan oinarrituta, karga handiko tratamendu biologikoa egitea erabaki zen, hasiera batean bederen nahikoa 271/91 zuzentaraua betetzeko eta “ez hain kaltebera” gisa izendatutako inguruetara isurketak egiteko. lortu beharreko emaitzak ziren 60 mg/l solidoak igerian eta 60 mg O₂/l de dbos tratatutako efluentean.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Kontua da HUAn aplikaturiko tratamendua aldatzea edo/eta handitzea, isurketa Baimenean eskatutako arazte errendimenduak lortu ahal izateko.

OHARRAK

--

Geroago, Eusko Jaurlaritzaren **LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILAK** irailaren 7ko 168/2004 DEKRETUAREN bidez, berraztertu eta izendatu zituen Euskal Autonomi Erkidegoko itsas uretako eta erkidego barruko arroetako inguru kalteberak kostaldearen inguru 1998. urtean esleitu ziren Atalerrekako HUA eraikitze proiektuaren erredakzio eta gauzatze lanak, eta 2004. urtean jarri zen abian instalazio hori. Aurreikuspenen arabera, itsaso zabalera ematen duen Euskal kostaldeko itsasbazter



KONPONTZE ETA HOBEKUNTZA LANAK AMUTEKO HONDAR PLANTATIK SOLIDOAK ATERATZEKO

JARDUERA ESPARRUA

Tratamendua eta arazketa

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

40.000 euro (BEZik gabe)

ADMINISTRAZIO TRAMITAZIOA

Ez da beharrezkoa

LEHENTASUNA

TXIKIA

AZALPENA


Makineria gastatua dago eta bizitza erabilgarriaren amaierara iristen ari da.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra honen helburua da solidoen harrera torlojua eta ateratze torlojua aldatzea.

OHARRAK

--



HOBEKUNTZA LANAK ATALERREKAKO H.U.A.-N (OBRA ZIBILA ETA AKTIBOAK)

JARDUERA ESPARRUA

Tratamendua eta arazketa

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

580.000 euro (BEZik gabe)

ADMINISTRAZIO TRAMITAZIOA

Ez da beharrezkoa

LEHENTASUNA

JARRAITUA



AZALPENA

Hainbat jarduera egingo dira honako hauek lortzeko:

- Digestorean eta gas hodietan egungo irabiatze prozeduragatik sortzen diren aparrek eragindako gainezka egiteak eta buxadurak saihestea, Ex eremua murriztea, solidoen deuseztatzean gaitasuna handitu eta hobetzeaz gainera.
- Harrera toberan eta lohiak ponpatzean izaten diren arazoak saihestea eta lehortze termikorako eta lohiak deshidratatzeko sistemaren ustiapena hobetzea.
- MWM motorra Islara egokitzea, banaketa sare elektrikoa deskonektatzen denerako.
- PLC deskatalogatuak eta ordeko piezarik gabeak aldatzea.

Bestalde, hondakin urak dituen zenbait elementuk eraso handiak eragiten dituzte hondakin urak tratatzeko planta osatzen duten metalezko ataletan, hormigoietan eta gainerako elementuetan, eta horren ondorioz, kontserbatze eta babeste lanak egin behar izatean dira etenik gabe.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Hainbat jarduera egingo dira araztegiari:

- Hobekuntzak digestoreko irabiatzean
- Lohi deshidratatuak silora eta lehortzera garraiatzeko ponpa
- Moto-generatuetan aldaketak Islan integratzeko
- 2PLC ur eta lehortze linean.
- Eraikina eta obra zibila kontserbatzea eta hobekuntzak egitea, etengabe hondakin urekin kontaktuan dagoen hormigoien hondatzea moteltzeko, dituen elementu korrosiboen aurrean hura babesteko lausotze teknikak edo erretxinak erabilia.

OHARRAK--

HOBEKUNTZA LANAK ELORDIKO EUTPN (OBRA ZIBILA ETA AKTIBOAK)

JARDUERA ESPARRUA

Tratamendua eta arazketa

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

370.000 euro (BEZik gabe)

ADMINISTRAZIO TRAMITAZIOA

Ez da beharrezkoa

LEHENTASUNA

JARRAITUA



AZALPENA

PH txikia du Endarako urtegitik etorritako ur gordinak, eta horrenbestez, bere egoera naturalean korrosiboa da ura tratatzeko plantako garraio eta kontrol sistemetako metalezko elementuentzat, eta baita EUTPk dituen kontaktu ganberetan, dekantagailuetan, irazkietan eta gainerako elementuetan dagoen hormigoiarentzat ere.

Etengabe urarekin kontaktuan dagoen hormigoiaren hondatzea moteltzeko, hura babesteko erretxinak erabiltzea planteatzen da. Era berean, dauden jarioak kenduko dira, prebentzio mantentze lanak egiteaz gainera.

Bestalde, prozesu jarraituetan badira aktibo batzuk, prozesu desberdinetan esku hartzen dutenak, edateko ura tratatzeko plantan erabiltzen direnak, gaur egun oraindik zerbitzuan ari direnak orain dela hogeitaz geroztik. Agortzeagatik edo iraungitzeagatik ekipoak aldatzeko beharra aurreikusten da.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra honetan hainbat jardura egingo lirateke Edateko Ura Tratatze Plantan, honako hauek, hain zuzen ere:

- Eraikina eta, oro har, obra zibila kontserbatzeko eta hobetzeko lanak.
- Plantako deposituak irazgaiztea.

Ura edateko ur bihurtzeko prozesuetan behar bezala jarduteko beharrek aktiboak aldatzea.

OHARRAK--

--

BERRITZE LANAK HONDAKIN URAK PONPATZEKO PLANTETAN

JARDUERA ESPARRUA

Tratamendua eta arazketa

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

595 0.000 euro (BEZik gabe)

ADMINISTRAZIO TRAMITAZIOA

Ez da beharrezkoa

LEHENTASUNA

JARRAITUA



AZALPENA

Behobia, Gal, San Pablo, Amute, Puntal eta Hondartzako hondakin urak ponpatzeko plantetan egin beharreko hainbat jarduera dira, esate baterako, eraikinen estalkiak hobetu, dagoen gehieneko emaria handitzeko berritze lanak eta errendimenduak handitzeko lanak egin, edo bestela elementuak deskatalogatuak daudelako eta ordezkoko piezarik ez dagoelako.

OBAREN DESKRIBAPENA

- Behobiako HUPPn, Indar ponpa bat kendu eta haren ordezkari FLYG N ponpa jartzea aurreikusten da, eta horrekin osatu egingo litzateke HUPP horretan hiru ponpak berritzeko lana.
- Galeko HUPPn, 1995. urtean egindako teilatua aldatzea aurreikusten da eta Indar ponpa bat aldatzea eta FLYG C ponpa jartzea, ponpak berritzeko eta ponpatze plantaren emaria eta errendimendu orokorra handitzeko.
- San Pablo HUPPn, N motako bi ponpa aldatuko dira eta C motako bi jarriko dira, instalazioak duen errendimendua eta dauden emariak handitu ahal izateko.

- Amuteko HUPPn, bi ponpa aldatzea aurreikusten da, eta horri esker, handitu egingo da instalazioko gehieneko emaria.
- Puntaleko HUPPn, 1999. urteko bi ponpa aldatzea aurreikusten da, ponpa horiek egiten dituen enpresa itxi izanagatik jada ez baita ordezkoko piezarik aurkitzen merkatuan.
- Hondartzako HUPPn hainbat esku hartze egingo dira. Estalkigaina eta aluminiozko egitura kontserbatzea, berritu beharra baitago. 5. ponpa hustubidearekin lotzea pasealekuko arroketatik irteerak saihesteko. 230 kW-eko bi ponpa aldatzea, 1995. urtekoak diren multzo hidrauliko horien errendimendua hobetzeko. Eta azkenik, erregulagailuak eta CCM kontrola aldatzea; konpentsagailuak eta euste balbulak, elementu horiek bibrazioen eta dilatazioen ondorioz zartatuak egoteagatik, edo deskatalogatu izanagatik ordezkoko piezarik ez egoteagatik.

OHARRAK

--

IPARRAGIRRE BEHEKOA DEPOSITU BERRIA

JARDUERA ESPARRUA

Hornidura eta banaketa

GARAPEN MAILA

Aztertzen

KALKULATUTAKO AURREKONTUA


1.100.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatzeko beharrik

LEHENTASUNA

OSO HANDIA



AZALPENA

Erdi lurperatuta dago depositu hau eta 70. hamarraldiko lehen urteetan eraiki zuten. Oñurre auzoaren gainaldean dago, Bilbo-Behobia autopistatik gertu (A-8). Formaz angeluzuzena da, eta erdiko horma batek bi ganberatan banatzen du. 5 metrokoa da ur xaflak har dezakeen gehieneko altuera era 6.500 m³-ko edukiera du. Fatxada nagusiaren erdian dago giltzen ganbera, eta 10,5 x 5 m-koak dira haren neurriak oinplanoan.

Deposituak akatsak ditu egiturari, junturak higatuak, ur jario batzuk, kanpoko paretetan hainbat arrakala, eta estalkia egoera txarrean, eta horrenbestez, goitik behera berritu behar zen.

Egon daitezkeen hobekuntza aukerak xehe aurkeztu ondoren, eta lurraren baldintzak eta deposituaren egituraren egoera sakon aztertu eta gero, erabaki da egokiena izango litzatekeela depositu berria eraikitzea

OBRAREN DESKRIBAPENA

Lehenengo, bypass bat egin da depositura, lanak egiten diren bitartean hornidurari eutsi ahal izateko. Lurra hobetuko da, egungo egitura eraitsiko da eta depositu berria eraikiko da hormigoi armatuz egungoaren oinaren gainean, dagoen indusketa aprobetxatuz. Deposituan balbula berriak jarriko dira, eta baita kontrol eta segurtasun elementuak ere

OHARRAK

--

IBAIETAKO ADAR NAGUSIA BERRITZEA

JARDUERA ESPARRUA

Hornidura eta banaketa

GARAPEN MAILA

Proiektua idazten ari da

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

480.000 euro (lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Lurrak kudeatu behar dira

LEHENTASUNA

HANDIA

AZALPENA

Iruten ura banatzeko sareko adar garrantzitsuenetako bat da Ibaietako deposituko adar nagusia. Hirurogeita hamargarren urteetan instalatu zuten, eta 600 mm-ko hodi batez eta fibrozementuzko 300 mm-ko beste hodi batez osatuta dago. Kontuan izanik hoditeria horren garrantzia, komenigarria da hura berritzeko eta burdinurtuzko hoditeria batez ordezkatzeko planteamendua egitea

OBRAREN DESKRIBAPENA

Burdin urtuzko 600 mm-ko hoditeria bat eraikiko da, Ibaietako deposituko giltzen ganberatik Ermita kaleko zubiraino. Hodi horretatik abiatuko da 300 mm-ko diametroa izango duen beste adar bat, eta Larreaundi auzorantz luzatuko da

OHARRAK

Ez da balioetsi lurren kudeaketa





IRUN ETA HONDARRIBIKO BANAKETA SAREAK ELKARTZEA

JARDUERA ESPARRUA

Hornidura eta banaketa

GARAPEN MAILA

Ez da proiektua idatzi

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

250.000 euro (lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Lurrak kudeatu behar dira

LEHENTASUNA

HANDIA

AZALPENA

Irungo eta Hondarribiko udalerrietako ura banatzeko sareak Zubi-Musuko biribilgunearen eta Amute auzoaren artean dagoen hodi bakar batek batuta daude. Eta horrek halako gunek ahul bat sortzen du horniduraren segurtasunean edo Hondarribiko adar nagusian uraz hornitzeko hodian matxura garrantzitsuren bat gertatuz gero.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Lan hauetan beste kanalizazio bat eraikiko da Zubi-Musuko biribilgunearen eta Amute auzoaren artean dagoenaren paraleloan. Esku hartze honek osatu egingo ditu San Migel auzoko urbanizazioan planteatu beharreko banaketa sarea handitzeko lanak.

Lehen esku hartze gisa, dagoen hoditeriako fibrozementuzko hodien zatiak berrituko dira.

OHARRAK

Ez da balioetsi lurren kudeaketa



IPARRAGIRRE GOIKOA DEPOSITUA BERRITZEA

JARDUERA ESPARRUA

Hornidura eta banaketa

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

800.000 euro (lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrik kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

HANDIA

AZALPENA

Erdi lurperatuta dago depositu hau, 70. hamarraldiko lehen urteetan eraiki zuten. Iparragirre baserritik hurbil dago eta 4.500 m³-koa da haren edukiera. Formaz angeluzuzena da, 40,80 m luze bider 25,80 m zabal. Erdiko horma batek bi zatitan banatzen du, eta 4,50 m-koa da ur masak har dezakeen gehienezko altuera. Fatxada nagusiaren erdian dago giltzen ganbera, 10,5 x 5 m-koak dira haren neurriak oinplanoan. Honez gero zaharrituta dagoen deposituaren egiturak gabezia ugari ditu, higatuta daude junturak, ur jarioak daude, eta kanpoko aldeari begira dauden hormetan ere pitzadurak nabari dira.

Depositua aspaldian egina izanik eta egoera kaskarrean dagoenez hobetu egin beharra dago haren egitura, berriz ere bihurtu behar da iragazgaitz, balbulak eta sarrerak nahiz itxiturak egokitu behar dira, eta igeltserotza lanak egin behar dira oro har.

Esku hartze honi esker hobetu egingo da uraren kalitatearen gaineko kontrola, eta batez ere desagerrarazi egingo dira egun dauden jarioak

OBRAREN DESKRIBAPENA

Hasteko, depositurainoko by-pass bat eraikiko da eta egitura hobetzeko, iragazgaitz bihurtzeko, balbulak hobetzeko eta sarrerak, itxiturak eta beste batzuk eraikitzeke proiektu bat idatziko da.

Proiektu horretan finkatuko dira deposituko ganberak iragazgaitz bihurtzeko beharrezkoak diren esku hartzeak, eta bertan zehaztuko da nola eguneratu instalazioak, balbulak eta eraikina, azken hori denboraren joanean hondatu baita.

OHARRAK

--



URA BANATZEKO ADAR ZATIA ARABA KALEAN

JARDUERA ESPARRUA

Hornidura eta banaketa

GARAPEN MAILA

Ez da proiekturik idatzi

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

270.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrik kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

HANDIA-ERTAINA

AZALPENA

Iparragirre Goikoa deposituko adar nagusia bi adarretan banatzen da Arretxe-Ugaldetik hurbil. Araba kalean barrena Aranibar tuneleraino luzatuko den adar bat eraikitzea proposatzen da industrialdea hornitu ahal izateko.

Aurreko Planaren garapenean hainbat tarte edo zati eraiki ziren, eta gaur egun PASQUIER enpresaren parean dagoen aparkalekutik Aranibar tunelaren ondoko biribilgunera dagoen tarte baizik ez da falta.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra hauetan burdinurtuzko hodi bat jarriko da Kateako kirol gunetik Aranibarreko tuneleraino. Hodi horrek 300 mm-ko diametroa izango du.

Ibilbide honetako zati txiki bat, Harmugarrieta kalearen eta Elatzeta ikastetxearen artean dagoena, egin berria da udal jarduera batekin batera.

OHARRAK

--



GUADALUPEKO HORNIDURA ETA DEPOSITUA ETA LANDA EREMUKO BANAKETA SAREA

JARDUERA ESPARRUA

Hornidura eta banaketa

GARAPEN MAILA

Bada proiektua

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

2.300.000 euro (Lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Lurrak kudeatu behar dira

LEHENTASUNA

HANDIA-ERTAINA

AZALPENA

Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak idatzitako eta onartutako Behe Bidasoako Hornidura eta Saneamendu Planean ura Elordiko Edateko Ura Tratatzekeko Plantatik Eskualdeko abonatu guztiengana helaraztea aurreikusten zen.

Hondarribiko udal barrutian Errandoneako depositua da ura 60. kotatik behera dauden kontsumo puntuetara banatzen duena. Ura kota garaigoetara eramateko Guadalupetik gertu depositu berri bat eta sare berri bat egitea planteatzen da, bertatik hornituko lirateke Hondarribiko goi aldeak.

Horretarako, Errandoneako depositura iristen den hodiko ur presioa baliatuz, Txomin-Enea baserriaren ondoan Depositu-Ponpaleku bat eraikitzea proposatzen da. Eta Ponpaleku horretatik ura Guadalupe aldean eraiki beharreko depositu berrira eramango litzateke, bertatik banatuko litzateke ura Hondarribiko goi aldeetan barrena.


OBRAREN DESKRIBAPENA

Hainbat etapatan bideratuko dira:

- 1.- **Ura Txomin-Eneako depositu/ponpalekura eramateko hodia**
- 2.- **Depositu erregulatzaileria - Txomin-Eneako ponpalekua**
Depositu honetatik 60. kotaren inguruan kokatutako kontsumoak hornituko dira.
- 3.- **Ura Txomin-Eneako depositu/ponpalekutik banatzeko hodia**
Depositu honetatik banatuko zaie ura +60 eta +70 bitarteko kota mailan dauden baserriei;
- 4.- **Ura Guadalupeko depositura ponpatzeko hodia**
- 5.- **Guadalupeko depositua**
500 m³-ko edukiera izango duen hormigoi armatuzko depositu bat eraikitzea aurreikusten da; bi ganbera izango ditu.
- 6.- **Ura Guadalupeko depositutik banatzeko hodia**
Depositu honetatik banatuko da ura kota garaietan dauden baserrietara,

OHARRAK

--



ERRANDONEAKO DEPOSITUA BERRITZEA

JARDUERA ESPARRUA

Hornidura eta banaketa

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

700.000 euro (Lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

ERTAINA

AZALPENA

Hondarribiko Errandonea baseritik gertu dago Errandoneako depositua, bi etapatan eraiki zuten: lehenengoa 70. hamarraldian, lehen adierazitako Iparragirre Goikoa eta Behekoka deposituak eraiki zituzten garai berean. 90. urteen amaieran, Elordi-Errandonea hodia eraikitze lanekin batean, bikoiztu egin zuten deposituaren edukiera. 4.500 m³-ko edukiera du haietako bakoitzak. 70. urteetan eraikitako deposituaren egoera eta aurreko fitxetan deskribatutakoena antzekoa da oso. Hau da, gabeziak dauzka egitura, higatuta daude junturak, ur jario batzuk daude eta kanpoko aldeari begira dauden hormetan pitzadurak daude.

Aurreko kasuetan bezalaxe, depositua aspaldian egina izanik eta egoera kaskarrean dagoenez hobetu egin beharra dago haren egitura, berriz ere bihurtu behar da iragazgaitz, balbulak eta sarrerak nahiz itxiturak egokitu behar dira, eta igeltserotza lanak egin behar dira oro har.

Esku hartze honi esker hobetu egingo da uraren kalitatearen gaineko kontrola, eta batez ere desagerrarazi egingo dira egun dauden jarioak.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Hasteko, egitura hobetzeko, iragazgaitz bihurtzeko, balbulak hobetzeko eta sarrerak, itxiturak eta beste batzuk eraikitze proiektu bat idatziko da.

Proiektu horretan finkatuko dira deposituko ganberak iragazgaitz bihurtzeko beharrezkoak diren esku hartzeak, eta bertan zehaztuko da nola eguneratu instalazioak, balbulak eta eraikina, azken hori denboraren joanean hondatu baita.

OHARRAK

--



URA BANATZEKO SARE NAGUSIA BERRITZEA

JARDUERA ESPARRUA

Hornidura eta banaketa

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

3.000.000 euro (Lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

JARRAIA



AZALPENA

Adar nagusien, sare nagusien eta bigarren mailako sareen bidez, ura depositu erregulatzaileratik kontsumo puntuetaraino hornitzeaz arduratzen diren presiopeko hodian multzoa da uraren behe banaketa sarea.

Txingudiko Zerbitzuak Plan honen garapenaren esparruan planteatutako helburua da Sare Nagusietako Adar eta Hodi Nagusiek muga-urteari begira aurreikusitako eskaerari erantzuteko beharrezkoak dituzten ezaugarri materialak, diametroa eta edukiera izatea. Horretarako, ezinbestekoa da aspaldikoak diren hodi nagusiak berritzea eta egun edukiera eskasekoak direnen edukiera emendatzea.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Hainbat esku hartze bideratuko dira obra hau burura eramateko, obrek ez dute etenaldirik izango Planaren iraunaldian zehar, eta Planaren iraunaldian zehar burutuko diren udal jarduerekin koordinaturik bideratuko dira.

Besteak beste, honako esku hartze hauek aipa ditzakegu:

- 1.- Buenavistako deposituko sarea: Tarteak Dario Regoyos, Pio Baroja, Uranzu eta beste kale batzuetan.
- 2.- Ibaietako Deposituko sarea: Tarteak San Martzial, Miguel de Anbulodi eta beste kale batzuetan.
- 3.- Iparragirre Goikoa deposituko sarea: Tarteak Belitz kalean, Anakan, Hondarribian...
- 4.- Errandoneako Deposituko sarea: Tarteak Baserritar hiribidean eta Jaizkibel Hiribidean.

OHARRAK

--

ANAKAKO SANEAMENDUAREN ERABERRITZEA

JARDUERA ESPARRUA

Saneamendua

GARAPEN MAILA

Azken urteetan abiarazi dira Auzoko saneamendu sareko hodiak berritzeko lanak.

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

300.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

OSO HANDIA

AZALPENA

Anaka auzoan, Anaka, Julian Gayarre, Luis M^a Tolosa eta Lekuona Misiolaria kaleen artean dauden etxeen eremuan, erabat hondatuta dago saneamendu sarea. Banakako kolektoreak dira, oso egoera txarrean daude, eta oso sakon daude egokituta.

Tarte batzuetan hausturak gertatu dira, eta haustura horietan sartzen dira hodiaren ondoko lurrak. Ondorioz, buxadurak eta jarioak gertatzen dira, eta behera etortzen dira zoladurak.

Hortaz, behar-beharrezkoa da esku hartze azkar bat bideratzea arazoa konpontzeko.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Auzoan barrena mahuka itzulgarri auto-eramaileekin luzatzen diren kolektoreak berrituko dira.

Lan honetan PVC-ko kolektorea jarriko da egungo hormigoizko hodiaren lekuan, erregistro putzu berriak egingo dira etxeetako hartuneen lotura puntuetan eta desagerrarazi egingo dira dagoeneko beharrezkoak ez direnak.

OHARRAK

--



SANTA ENGRAZIAKO KOLEKTOREA

JARDUERA ESPARRUA

Saneamendua

GARAPEN MAILA

Proiektua idatzita dago

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

420.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

HANDIA -ERTAINA

AZALPENA

Santa Engraziako kolektorerak isurtzen den arroa bereiztailea da, Tximista kaleko eta Santa Engraziako biribilguneen artean (GI 34440) dagoen eremua izan ezik.

Arroa osoak saneamendu bereiztailea izan dezan lortzeko, planteatzen da bereiztea ur beltzak eta Tximista kaleko, Zezen plazako eta Haize Ederreko eraikinen estalkietako zorrotzetatik datozen euri urak.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra honetan kolektore bat eraikiko da ur beltzak jaso eta Kosta kaleko hodi biltzaile orokorrera eramateko.

Kolektoreak, biribilgunera iritsi ondoren, saihezbidea eta errekaen ibilgua gurutzatu beharko ditu gero hodi biltzailearekin elkartu ahal izateko.

OHARRAK

--



RAMON IRIBARREN PASEALEKUKO SANEAMENDUA

JARDUERA ESPARRUA

Saneamendua

GARAPEN MAILA

Proiektua idatzita dago

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

1.460.000 euro (Lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

ERTAINA

AZALPENA

ITERLIMEN izeneko urbanizazio pribatua, Hondarribiko Ramon Iribarren pasealekuan dagoena, hirurogeita hamargarren urteen hasieran eraiki zuten. Haren saneamendua unitario gisa diseinatu zuten, eta batera garraiatzen zituen hondakin urak eta euri urak elkarrekin nahasiak urbanizaziotik badiaraino “Ondartzako” eremuan, eta horrekin saihestu egiten zen zuzenean hondartzara isurtzea. Bizitegi blokeetako ur beltzen isurketak arazteko hobi septikoen bidez tratatzen dira INTERLIMENGO kolektorerara joan aurretik.

Gaur egun, Txingudi Badiako Saneamendurako Kolektore Hodi biltzaile Orokorra egin ondoren, isurketa unitario horiek, hala euri urak nola ur beltzak, “Ondartza” HUPPra garraiatzen dira diluzio emariaren muga jakin bateraino, eta handik “Atalerrekako” HUAra ponpatzen dira beharreko tratamendu biologikoa jaso dezaten itsasora isuri aurretik.

Hodi biltzaile Orokor publikoan sartzen diren euri emariak mugatu ahal izateko, Urbanizazioan dauden hobi septikoak baztertzeko eta Interlimengo barne sarearen mantenua errazteko, saneamendu sare berria egitea planteatzen da egungo irizpideak aintzat hartuta, gaur egun dauden arazoak txikitu daitezten

Gainera, diluzio emariak murriztean, Ondartzako ponpatze lanaren ustiatze kostuak ere murriztu egingo dira eta HUAko tratamendu biologikoa hobetuko da.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Hainbat kolektore zatirekin planteatzen da konponbidea:

- **Grabitateak eragindako ur beltzen bi kolektore berri “ITERLIMEN” esparruan.** Interlimen urbanizazioko jabeei dagokie haren finantzazioa.
- **Grabitateak eragindako ur beltzen kolektore berri bat “ITERLIMEN” esparrutik kanpo,** urbanizazioaren iparraldean sortutako emariak garraiatuko lituzkeena Arrantzaleen Lonjako Ponpatze plantaraino.

Kolektorea lurrian sartutako hoditeria ezku itxiarekin metodoaren arabera eraikiko da, barnean 1000 mm-ko diametroa duten hormigoi armatuko hodien bidez. Horretarako eraso-putzu bat eta bi irteera egin beharko dira.

OHARRAK

obra hau egiteko, jabe pribatuek beren barne kolektore zatiak egin behar dituzte esku hartze publikoarekin koordinatuta.



DUNBOA AUZOKO SANEAMENDUA

JARDUERA ESPARRUA

Saneamendua

GARAPEN MAILA

Ez da proiektua idatzi

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

2.300.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

ERTAINA

AZALPENA

Dunboa auzoko urbanizazioa 70. urteetan egina da. Sostengu ahalmen txikiko lurretan eraiki zen eta lur horiek finkapenak jasan dituzte denboran zehar.

Gorabehera horiengatik eta saneamendu sarea hormigoi zentrifugatuko hodiekin egin izanagatik, junturak irekiak dituzte kanalizazio gehienek. Horren ondorioz, lurreko ur kopuru handia iragazten da hodietan eta eragin hori askoz ere handiagoa da itsasgora dagoenean.

Iragazte emari horrek handitu egiten du hodi biltzaileko emariaren gazitasuna eta HUAr bideratzen denean arazte arazoak sortzen ditu. Gainera, emari hori, hainbat ponpatze plantatan bulkatzen da HUAr iritsi aurretik.

Arazo hori auzo osoan gertatzen denez, bertako kolektore guztiak berritu behar dira eta estankoak eraiki horrelako arazorik ez izateko.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra honetan auzoko ur beltzen eta euri uren kolektoreak berrituko dira. Komenigarria izango litzateke saneamendua udalarekin koordinatuta berritzea, auzoko kaleak berrurbanizatzeko unea aprobetxatu ahal izateko

OHARRAK

--



MENDELUKO SANEAMENDUA: ZUBIETA HIRIBIDEA/ZUBI-MUSUKO BIRIBILGUNE

JARDUERA ESPARRUA

Saneamendua

GARAPEN MAILA

Ez da proiektua idatzi

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

150.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

TXIKIA

AZALPENA

Zubieta hiribidearen inguruetan, Hondarribiko udalerriri dagozkion eraikinetako isurketek sare bereiztailea dute guztiek eta horrenbestez urak bereiz jasotzen dira, Zubi-Musuko biribilgunetik gertu Mendelu kaleko (GI-2134) eraikinetakoa izan ezik, horiek sistema unitarioa baitute oraindik.

Dauden ur beltzen isurketa guztiak euri uretatik ahalik eta bereizien jaso ahal izateko planteatzen da saneamendua bereizteko eta ur beltzak Zubimusuko kolektorerara biltzeko esku hartze hau

OBRAREN DESKRIBAPENA

Arestian aipaturiko eraikin horietako ur beltzen isurketak jasotzea eta Zubimusuko kolektore orokorrera bideratzea

OHARRAK

Eskuartze hau inguruko berurbanizazioarekin batera egin beharko litzateke



ZANGARIK GABEKO BERRITZE LANAK ESKUALDEAN

JARDUERA ESPARRUA

Saneamendua

GARAPEN MAILA

Ez da proiektua idatzi

KALKULATUTAKO AURREKONTUA


480.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

JARRAITUA



AZALPENA

Saneamendu sarean badira kolektoreak kontserbazio egoera txarrean egoteagatik aldatu behar direnak. Horietako batzuk dauden lekuetan udalek ez dute epe erdira berrurbanizazio lanik aurreikusita eta zangak irekitzea zaila da hainbat arrazoiengatik, honako hauek esate baterako: trafiko handia, sakonera handiak, beste zerbitzuen kanalizazio ugari zanga egitean ukituko liratekeenak eta abar.

Hala ere, hodiekin hainbat akats dituztenez, eta gainera akats larriak direnez, epe laburrean berritu egin behar dira.

Kanalizazio horiek berritzeko eta erabiltzaileei eragozpenik ez sortzeko, hodi horiek “zangarik gabeko” teknikarekin berritzea planteatzen da.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra honetan tutu formako mahuka malgua jarriko litzateke kanalizazioaren barnean, hodian barnealdeko hormetan itsatsiko litzatekeena erretxin termogogorgarri baten polimerizazioari esker.

Zangarik egin gabe hodiak berritzeko metodoetako bat da mahuka jarraitua ipintzea, horrek hainbat abantaila eskaintzen baititu, esate baterako: kolektoreen egituren gaitasuna berrezartzea eta gaitasun hidraulikoa hobetzea materialak zimurtasun txikiagoa izateagatik. Horri esker, hodi jarraitua izango litzateke, ia juntura guztiak murriztuko lirateke eta hodiaren irazgaiztasuna nabarmen hobetuko litzateke.

OHARRAK

--

SANEAMENDUKO SARE BERRITZEA

JARDUERA ESPARRUA

Saneamendua

GARAPEN MAILA

Ez da proiektua idatzi

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

3.600.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

JARRAITUA

AZALPENA

Irungo eta Hondarribiko udalek beren hirietan kaleak berrurbanizatzeko lanak egiten dituzte urtero. Txingudiko Zerbitzuak lan horiek aprobetxatzen ditu bere azpiegitura sareak berritzeko eta hobetzeko eta euri urak eta ur beltzak bereiz husteko sistema ezartzeko, urteetan egiten ari den bezala, saneamendu sare orokorraren diseinu eta funtzionamendurako Saneamendu Planak markaturiko jarraibideen arabera.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Aurrera eramaten diren berrurbanizazio lanetan euri urak eta ur beltzak bereizteko kolektoreak eraikiko dira obra honetan

OHARRAK

--



HONDARRIBIKO IPARRALDEKO BEHE IBARRAK DRAINATZEA: HIRIGUNEKO IPAR-MENDEBALDEA

JARDUERA ESPARRUA

Hiri drainatzea

GARAPEN MAILA

Proiektua idatzita dago

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

7.600.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

HANDIA



AZALPENA

Jaizkibel mendiaren azken adarretako mazeletan zehar dago antolatuta Hondarribiko hiria. Mendi adar horiek hiria alderik alde zeharkatzen duten arro txiki batzuk eratzen dituzte. Hiria handitu egin den heinean, bizitegi eremu berriak mazelen oinetatik gora egokitu dira, eta ondorioz, handitu egin dira uholdeek eragindako arazoak.

Behe ibarretatik etortzen diren emariak hiri aldeetara iristen dira, ur horiek ezin dituzte hartu hiriko saneamenduetako hartuneek, eta sare horiek ez dute ur horiek garraiatzeko gaitasunik. Horren guztiaren ondorioz, hirigunetik kanpoko arroetan sortutako emariaren ondorioz, urez betetzen dira etxebizitzetako sotoak eta errepedeak.

Bi eremutan bana ditzakegu behe ibar horiek: Lehenengo eremura biltzen dira hiri sarearen bidez Foru kalera (esku hartze honek xede duen eremua) isurtzen diren behe ibarrak, eta portura doan errepedera, Arroako biribilgunearen eta Lurgorri artean, isurtzen diren behe ibarrak (33. esku hartzeak xede duena).

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra hauetan arroko hiri drainatze sarea egingo da eta saneamendu sarea eta ur hornidurarako sarea berrituko dira ukituriko kaleetan barrena. Obra nagusia izango da hirigunearen burualdean euri urak biltzeko eta, euri urak bideratzeko hodian bidez, ur horiek Butroe Pasealekuaren amaieran Bidasoa ibaira isurtzeko lanak egitea.

OHARRAK

--



EGUZKITZAKO KOLEKTOREA

JARDUERA ESPARRUA

Hiri drainatzea

GARAPEN MAILA

Aurreproiektua idatzita dago

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

700.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

HANDIA



AZALPENA

Irungo erdiguneko behealdeko arroko hustubidea Dunboako kanal aldera doa Urdanibia plazaren ingurutik eta honako hauek ditu muga: iparraldean, Nafarroa hiribidea; mendebaldean, San Joan plaza eta Prudencia Arbide kalea; hegoaldean, Ama Birjina Mirarietako kalea eta Victoriano Juaristi kalea eta ekialdean, arestian aipaturiko Dunboako kanal hori. Arro honetara isurtzen dituzte euri urak kale Nagusiak, Arantzateko jauna kaleak eta Gaingaineen muinoak.

Urdanibia plaza eta Korrokoitz eta Papinea esparruak hiriko behealdean daude eta ekinozioko itsasgora bizien kotetatik hurbil. Egon daitezkeen uholdeen aurrean eremu hori babesteko, Korrokoitz eta Papinea esparruetan urak geldiarazteko deposituak eraikitzea aurreikusten da.

Depositu horien bolumena jaistearren, bi esku hartze planteatzen dira arroko goialdeetako euri urak jasotzeko eta zuzenean Dunboako kanalera bideratzeko behealdera joan gabe.

“Eguzkitzako kolektorea” eta “Sargia parkeko deskarga kolektorea” deitutakoak dira esku hartze horiek.

“Eguzkitzako kolektoreko” esku hartzea azalduko dugu fitxa honetan.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Kale Nagusitik, Arantzateko jauna kaletik, Gaingaineen parketik, San Joan plazatik eta Prudencia Arbide kaletik etorritako euri urak jasoko ditu Eguzkitzako kolektoreak.

Jesus eta Eguzkitza kaleen elkargunean hasiko da kolektorea eta azken horretatik jaitsiko da eta Ama Birjina Mirarietako kalea jarraituko du. Han, ezkerraldera hartuko du eta Ospitale zaharraren atzealdetik jarraituko du urak Dunboako kanalean hustu arte.

..

OHARRAK

--

SARGIA PARKEKO DESKARGA KOLEKTOREA

JARDUERA ESPARRUA

Hiri drainatzea

GARAPEN MAILA

Aurreproiektua idatzita dago

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

300.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

HANDIA-ERTAINA



AZALPENA

Irungo erdialdeko behealdeko arroako hustubidea Dunboako kanal aldera doa Urdanibia plazaren inguruan eta honako hauek ditu muga: iparraldean, Nafarroa hiribidea; mendebaldean, San Joan plaza eta Prudencia Arbide kalea; hegoaldean, Ama Birjina Mirarietakoa kalea eta Victoriano Juaristi kaleak eta ekialdean, arestian aipaturiko Dunboako kanal hori. Arroa honetara isurtzen dituzte euri urak kale Nagusiak, Arantzateko jauna kaleak eta Gaingainean muinoak.

Urdanibia plaza eta Korrokoitz eta Papinea esparruak hiriko behealdean daude eta ekinozioko itsasgora bizien kotetatik hurbil. Egon daitezkeen uholdeen aurrean eremu hori babesteko, Korrokoitz eta Papinea esparruetan urak geldiarazteko deposituak eraikitzea aurreikusten da.

Depositu horien bolumena jaistearren, bi esku hartze planteatzen dira arroko goialdeetako euri urak jasotzeko eta zuzenean Dunboako kanalera bideratzeko arroko behealdera joan gabe.

“Eguzkitzako kolektorea” eta “Sargia parkeko deskarga kolektorea” deitutakoak dira esku hartze horiek.

“Sargia parkeko deskarga kolektoreko” esku hartzea azalduko dugu fitxa honetan.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Parketik eta San Martzial kaletik datozen euri urak jasoko ditu Sargia parkeko deskarga kolektoreak eta Urdanibia plazatik gertu dagoen kutxeta batean bilduko ditu, hoditeria estanko baten bidez puntu horretatik Dunboako kanalera husteko beharreko kotan, ibilbide osoan inolako ekarpenik izan gabe. Presioz hustu daitezkeen hoditeria horrek bereizi egiten ditu goialdeko urak eta geldiarazteko deposituak erabiltzeko beharra dutenak.

OHARRAK

--

EMARIEN KONTROLA HODI BILTZAILEAN

JARDUERA ESPARRUA

Hiri drainatzea

GARAPEN MAILA

Ez da proiektua idatzi

KALKULATUTAKO AURREKONTUA


600.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Kokalekuaren arabera ikusiko da lurrak kudeatzeko beharrik dagoen ala ez.

LEHENTASUNA

HANDIA



AZALPENA

1993. urtean onartutako “Behe Bidasoa Eskualdeko Ur Hornidura eta Saneamendu Planean” definitzen zen hodi biltzailean ibili beharreko gehieneko emaria. Hainbat kontzeptu batuta lortzen zen hura: ur beltzen eta industriako uren gehieneko emaria, aurreikusitako infiltrazio emaria eta euri jasak izaten direnean ale bakarreko kolektoreetatik etorritako gehieneko emaria.

Azken ekarpen hori hustubideetara mugatzen zen eta eguraldi lehorrarekin hustubidean sartzen zen emariaren batez bestekoa halako lau zen haren kopurua.

Hodi biltzailera egiten diren ekarpenen kontrolean lan egin da urte hauetan guztietan eta emariak kontrolatu ahal izan dira egoera normaletan. Euri jasa handiak izaten direnean aldiz, emari horrek programatutakoaren bikoitza gainditzen du puntu batzuetan. Hori guztia infiltrazio gehiegi izateagatik, eraikinetako estalkietako zorrotzetatik etorritakoagatik, horiek kolektore publikora isurtzen baitute ura modu unitarioan, ur beltzen sarearekin loturiko isurbideen, kontrolik gabeko

drainatzeen eta zabortege motako hustubideen ondorioz.

Arazo hori txikitzeko, gainera, proposatzen da gai hauetan lanean jarraitzea eta hodi biltzailean emaria kontrolatzeko elementuak ezartzea.

OBRAREN DESKRIKAPENA

Obra honetan hodi biltzailera iristen diren emariak neurtzeko eta kontrolatzeko elementuak eraikiko dira arroko kolektore nagusiak harekin lotzen diren elkargunean, ponpatzeko estazioen eta hodi biltzailearen beraren funtzionamendua modelizatzeko eta optimizatzeko, euri zaparraden garaietan soberako emaria hustu dadin eta itsasgora dagoenean ur gazien ekarpena kontrola dadin

OHARRAK

Bidasoa ibaiaren inguruan kontrolatu beharreko kolektoreen zatia mugaz gaindiko lankidetzarako H2Ogurea proiektuan sartua dago eta Europar Batasunaren Interreg - Poctefa programak finantzatua da.

IBILGUETARA DOAZEN HUSTUBIDEEN ETA ISURKETEN KONTROLA

JARDUERA ESPARRUA

Hiri drainatzea

GARAPEN MAILA

Ez da proiektua idatzi

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

500.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatu beharrik

LEHENTASUNA

HANDIA

AZALPENA

Saneamendu sarean badira ale bakarreko kolektoreak kolektore orokorrekin elkartu aurretik hustubideak dituztenak, hodi biltzailean sartzen den emaria mugatzeko eta diluzio jakin bat gainditzen duen emaria husteko.

Hustubide horien funtzionamenduari dagokionean, honako hauek ezagutu behar dira: hustutako emariak, huste denbora, huste kopurua, haien kalitatea eta abar.

Husteen kontrol hori prozesu garrantzitsua da ingurumenari dagokionean, batik bat inguru babestuetan dauden eremuetan eta gurea bezalako kostaldeko eremuetan.

Hustubideen jarduna eta ingurumenean duten eragina eta isuritako uren karga kutsatzailea ebaluatzeko, telekudeaketa ekipo autonomoak jartzea proposatzen da, besteak beste, maila zundez eta gainezkatzeen detektagailuez hornituak.


Husteen iraupenen eta kopuruen informazioa emango digute ekipoek eta isuritako emarien estimazioa lortuko genuke halaber.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra honetan ekipo autonomoak jarriko lirateke sareko hustubideetan eta ekaitz tankeetan, eta haiei esker, datuak, alarmak, huste abisuak eta abar bidaliko dira sareko edozein puntutatik.

OHARRAK

RD 1290/2012 dekretuak agintzen duena betetzeko nahitaez egin beharreko obra da hau



HONDARRIBIKO IPARRALDEKO BEHE IBARRAK DRAINATZEA: ITSASARGIRA DOAN ERREPIDEAREN EREMUA

JARDUERA ESPARRUA

Hiri drainatzea

GARAPEN MAILA

Proiektua idatzita dago

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

5.500.000 euro (Lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Lurrak kudeatu behar dira

LEHENTASUNA

ERTAINA



AZALPENA

Jaizkibel mendiaren azken adarretako mazeletan zehar dago antolatuta Hondarribiko hiria. Mendi adar horiek hiria alderik alde zeharkatzen duten arro txiki batzuk eratzen dituzte. Hiria handitu egin den heinean, bizitegi eremu berriak mazelen oinetatik gora egokitu dira, eta ondorioz, handitu egin dira uholdeek eragindako arazoak.

Behe ibarretatik etortzen diren emariak hiri aldeetara iristen dira, ur horiek ezin dituzte hartu hiriko saneamenduetako hartuneek, eta sare horiek ez dute ur horiek garraiatzeko gaitasunik. Horren guztiaren ondorioz, hirigunetik kanpoko arroetan sortutako emariaren ondorioz, urez betetzen dira etxebizitzetako sotoak eta errepideak.

Bi eremutan bana ditzakegu behe ibar horiek: Lehenengo eremura biltzen dira hiri sarearen bidez Foru kalera (27. esku hartzeak xede duena) isurtzen diren behe ibarrak, eta portura doan errepidera, Arroko biribilgunearen eta Lurgorri artean, isurtzen diren behe ibarrak (esku hartze honek xede duen eremua).

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra honetan arroko saneamendu sarea eraikiko da eta ur hornidurarako sarea berrituko da aintzat hartutako kaleetan barrena.

Obra nagusia izango da Higer Bidean eta Baserritar Etorbidean zehar euri urak biltzea Errekabeatik, eta itsasora isurtzea, Arrokan dagoen biribilguneko isurbideko kolektorearen bidez.

OHARRAK

EURI URAK GELDIARAZTEKO DEPOSITUAK

JARDUERA ESPARRUA

Hiri drainatzea

GARAPEN MAILA

Ez da proiektua idatzi

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

600.000 euro (Lurrik eta BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Kokalekuaren arabera ikusiko da lurrak kudeatzeko beharrik dagoen ala ez.

LEHENTASUNA

ERTAINA



AZALPENA

Saneamendu sareko elementuak dira euri urak geldiarazteko deposituak, eta bi egiteko nagusi dituzte:

- Kolektoretik dabilen emaria zapaltzea kolektorean emari muturrak murriztu ahal izateko, eta horrenbestez, baita hodi biltzailean ere, hodi biltzaile horretan gehieneko emaria hobeto kontrolatu ahal izateko.
- Solidoekin datozen eta bide publikoan utzitako elementuak herrestan eramaten dituzten lehen euri urak geldiaraztea, elementu horiek erreka joan ez daitezen. Geldiarazitako ur hori pixkanaka-pixkanaka askatzen da, eta gainera, kutsadura maila murrizten da, geldiarazte horrek eragindako sedimentazioagatik.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra honetan euste deposituak eraikiko dira sareko hainbat lekutan, kolektoreetatik doazen emariak kontrolatu ahal izateko.

OHARRAK

ESKARIAREN KUDEAKETA

JARDUERA ESPARRUA

Neurketa eta kontrola

GARAPEN MAILA

Etenik gabeko lanak

KALKULATUTAKO AURREKONTUA


400.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatzeko beharrik

LEHENTASUNA

ERTAINA



AZALPENA

Eskariaren Kudeaketa kontzeptura biltzen dira uraren eskaria murriztea eta uraren eragingarritasuna hobetzea ahalbidetzen duten eta baliabide hidrikoen hondatzea saihesten duten jarduerak edo esku hartzeak.

Hauexek dira esku hartze hau garatzeko arrazoi esanguratsuenak: ingurumenean ura kontserbatzeko kezka eta eskaera guztiei erantzuteko baliabideak lortzeko gero eta zailtasun handiagoa.

Printzipio horiek burura eramateko ekintzen diseinua Programa estrategiko batzuen inguruan laburbil daiteke:

1. Ura aurrezteak: uraren kontsumoa murriztea da xedea, ura modu eraginkorrean erabiltzea, hiritarrak kontzientziaztea eta sarean jarioak murriztea.

2. Azpiegituren kudeaketa hobetzea. Horrenbestez berrmatuko da baliabideen hornidura nola kantitatearen hala kalitatearen ikuspegitik.

3.- Sarearen eragingarritasuna handitzea. Edateko uraren kontsumoa murrizteko jarduerak. Horretarako teknologia berri aurreratuenak instalatuko dira kontsumo ekipoetan eta gailuetan.

4. Herritarren parte hartzea sustatzea: Herritarren artean ura kontsumitzeko eta aurrezteko jardunbide egokiak ezagutarazteko eta zabaltzeko ekintzak.

5.- Banaketa sareak berritzea: Bat-bateko hausturen indizea txikitzeko helburuarekin.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Irizpide ildo horretan lan egiteko, jarraian adierazten diren gisako lanak egingo dira:

- Jarioak kontrolatzeko kanpainak egingo dira kontrolatu gabeko emaria murrizteko eta eskualdean uraren guztizko kontsumoa murrizteko.
- Sarea modelizatuko da sarearen gaineko kontrola handiagoa izan dadin.
- Automatikoki kudeatuko dira presioak.
- Herritarrak kontsumoaren sentsibilizatzeko kanpainak egingo dira.
- etab.

OHARRAK

TELEAGINGAILU EKIPOAK ETA PROGRAMAZIOA ALDATZEA

JARDUERA ESPARRUA

Neurketa eta kontrola

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

420.000 euro (BEZik gabe)

ADMINISTRAZIO TRAMITAZIOA

Ez da beharrezkoa

LEHENTASUNA

ERTAINA

AZALPENA

Hardwarea eta sistema eragileak oso zaharkituta daudenez, haien eraginkortasuna murriztu daiteke. Hori dela-eta, sistemak aldatu eta ahalmen handiagoko bertsioak jarri nahi dira, hobekuntza handiak lortzeko


OBRAREN DESKRIBAPENA

Honako hauek egingo dira:

- SCADA programa aldatu
- Teleagingailu ekipak aldatu

OHARRAK

--



BANAKETA SAREAREN SEKTORIZAZIOA HOBETZEA

JARDUERA ESPARRUA

Neurketa eta kontrola

GARAPEN MAILA

Egina dago sarearen sektORIZAZIOA

KALKULATUTAKO AURREKONTUA


500.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatzeko beharrik

LEHENTASUNA

JARRAITUA



AZALPENA

Sarearen sektORIZAZIOA edateko uraren horniduran jarioak hautemateko estrategia garrantzitsuenetakoa da. Helburu nagusietako bat da banaketa sareetan kontrolatu gabeko ur bolumenak murriztea. Horretarako, eremu txikitan banatzen da sarea, eta neurketak egiteko ekipoak (emaria neurtzeko gailuak, kontagailuak, presioa neurtzeko ekipoak...) instalatzen dira aipatu eremuetan sareak nola funtzionatzen duen salatze parametroak (presioa, emaria...) lortzeko. Ura banatzeko sareen sektORIZAZIOAREN helburu nagusia da sareko kontsumoen gaineko kontrola handitzea. Kontrol hori zorrotzagoa izanik, besteak beste:

1. Kontsumoak eremuen arabera duen bilakaera ezagutuko da.
2. Sektore bakoitzeko erabiltzaileak ezaugarrituko dira, eta eskaera partikularren xehetasunak izango dira.
3. Balantze hidriko espezifikoak egin ahal izango dira sektore bakoitzeko.
4. Sektore bakoitzean kontsumoaren gehieneko eta gutxieneko mugak salatze alarman finkatuko dira.
5. Azkar eta modu eraginkorrean hautemango dira jario berriak.
6. Hodietan abiadurei eusteko eta presioak kontrolpean edukitzeko aukera

izango da; horrenbestez saihestu egingo dira kalitatearen alorreko arazoak eta hobe kontserbatuko dira ur eroaleak. Laburbilduta, sarea sektORIZATUTA mantentze lanak zentzuzkoagoak eta eraginkorragoak izango dira, gorabeheraren bat gertatuz gero sareko gune mugatueta jardungo da, eta hobe ezagutuko dira gorabeheraren ondorioak eta balizko konponbideak.

Mankomunitateari dagokion sarearen sektORIZAZIOA aurreikusitakoaren arabera dago egina bi hirietan, baina berau mantentzeko eta eguneratzeko ezinbestekoa da azpiegituraren funtzionaltasunari begira ekipoak berritzeko lanek etenik ez izatea eta lan horietan aurrerabide teknikoak aplikatzea.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Lanak batez ere sarean instalatutako ekipoak berritzean, hobetzean eta modernizatzean daude.

Aldi berean sektORIZAZIOKO elementu guztiak kalibratuko dira eta kontrol lanak egingo dira funtzionamendua eta eskaintako datuen zehaztasuna bermatzeko.

KONTAGAILU PARKEA ETA TELEIRAKURKETA

JARDUERA ESPARRUA

Neurketa eta kontrola

GARAPEN MAILA

2015. urte amaierako ezarria zen kontagailu parkea

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

1.800.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatzeko beharrik

LEHENTASUNA

JARRAIA



AZALPENA

Txingudiko Zerbitzuak 2007. urteaz geroztik ari da Irungo eta Hondarribiko kontagailu parke osoa berritzen, eta une honetan amaitzeaz du eskualdeko kontagailu guztiak erabat berritzeko prozesua.

Aldi berean Erlea Proiektua garatu da. Proiektu horrek enpresaren jardura guztiak biltzen ditu, eta teknologia berri batzuk aplikatu dira bertan.

Teknologia horietatik bi, garrantzitsuenak eta Kudeaketa eredu berri osoaren euskarriak, **kontagailuen Teleirakurketarako Sare Finkoa** eta enpresako arlo desberdinetako datuak erlazionatu eta geografikoki kokatzeko gai den **Informazio Geografikorako Sistema Korporatiboaren** garapena dira.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Lanak batez ere sarean instalatutako ekipoak berritzean, hobetzean eta modernizatzean dautza.

Aldi berean sektorizazioko elementu guztiak kalibratuko dira eta kontrol lanak egingo dira funtzionamendua eta eskaintako datuen zehaztasuna bermatzeko.

Helbideratutako kontagailuen sarearen egoera da kontrolatu gabeko emarian eragiten duen beste osagai bat. Kontagailu parkea hondatzen den heinean azpi-kontaktak, matxuratutako kontagailuak eta ez dabilen kontagailuak azaleratzen dira. Azken azterlanen arabera, 8 eta 10 urte bitarteko epean berritu behar dira kontagailuak.

2007. urtean hasi ziren kontagailu parkea berritzen, eta kontagailuak 10 urtean behin berritu behar direla kontuan izanik, 2017. urtean hasi beharko ditugu egungoak berritzeko lanak.

Aldi berean, eguneratuko eta modernizatuko dugu kontagailuen Teleirakurketarako Sare Finkoa.

OHARRAK

--

DOMIKOKO URTEGIRA DOAN KARGA HODIA ETA MULTZO HIDRAULIKOA BERRITZEA DOMIKOKO ZENTRAL HIDROELEKTRIKOAN

JARDUERA ESPARRUA

Energia

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

180.000 euro (BEZik gabe)

ADMINISTRAZIO TRAMITAZIOA

Ez da beharrezkoa

LEHENTASUNA

AZALPENA

Hodiak hainbat jario ditu eta, azken aldian konponketa batzuk egin arren, jario gehiago ateratzen dira.

Multzo hidraulikoan, makinako kojinetea hondatua dago, eta horren ondorioz ezin da jarritako indar handiengan igaro turbinatik. Bestalde, Francis makinaren errendimendua oso txikia da

OBRAREN DESKRIBAPENA

Obra hauen helburua da urtegiko karga hodiko bigarren zatia eta multzo hidraulikoa berritzea Domikoko Zentral Hidroelektrikoan.

OHARRAK

--

HANDIA



HOBEKUNTZA ENERGETIKORAKO PROZESUAK HORNIDURAN ETA SANEAMENDUAN

JARDUERA ESPARRUA

Energia

GARAPEN MAILA

Ez dago proiekturik

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

155.000 euro (BEZik gabe)

ADMINISTRAZIO TRAMITAZIOA

Ez da beharrezkoa

LEHENTASUNA

ERTAINA



AZALPENA

Txingudiko Zerbitzuak energia kontsumitzaile handia da uren hornidura eta arazketa sistemekin loturik. Tratamendu horiekin loturiko energia etenik gabeko elektrizitate kontsumoa da, eta hori optimizatu egin behar da prozesuak iraunkorragoak izan daitezen lortzeko.

Energiaren kontsumoaren murrizketaren arrazoietako bat da, beste faktore batzuen artean, eskaria murriztu izana eta hornidura sareetan dauden ur galerak. Ez bakarrik dauden sareak hobetu izanagatik baizik eta telekontrol sistemak ezarri izanagatik ere ezkutuko jarioak sistematikoki hautemateko, eta ponpatze sistema optimizatu izanagatik prezio alaketetara eta ur hornidura eskaeretara egokitzeko.

Eta HUPPri eta HUARI dagokienean, urak ponpatu, tratatu eta arazteko instalazioen eraginkortasuna nabarmen hobetzen ari dira ezartzen ari diren teknologia berriengatik. Horri esker, hobekuntza handiak lortuko dira energiaren eraginkortasunean.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Ekipoak aldatzea eta energia eraginkortasun handiagoa dutenak jartzea, instalazioak teknologia berrien garapenetara egokitu daitezen eta kontsumo txikiagoa eta energia eraginkortasun handiagoa izan dezaten.

OHARRAK

--

ENERGIA BERRESKURATZEA HORNIDURA DEPOSITUETAN SARTZEN DEN EMARIAREN ERREGULAZIOAN

JARDUERA ESPARRUA

Energia

GARAPEN MAILA

Hiru proiektuetako bat garatua

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

510.000 euro (BEZik gabe)

ADMINISTRAZIO TRAMITAZIOA

Beharrezkoa da

LEHENTASUNA

AZALPENA

Edateko uraren sareko zenbait depositutan presioa edo emaria murrizteko balbulak daude, eta haien helburua da energia barreiatzea. Karga depositu horien sarreran hausten den etengabeko emaria aprobetxatuz, energia errendimendua lortzen dugu. Merkaturatzeko, edo instalaziorako hornidura gisa erabil liteke hortik lortutako energia.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Deposituen sarreran energia berreskuratzeke mikroturbinak jartzea.

OHARRAK

--



REHABILITACIÓN DEL EDIFICIO DE LA CENTRAL HIDROELÉCTRICA DE IRUGURUTZETA

JARDUERA ESPARRUA

Energia

GARAPEN MAILA

Ez da proiektua idatzi

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

550.000 euro (BEZik gabe)

LURRAK ESKURATZEA

Ez dago lurrak kudeatzeko beharrik.

LEHENTASUNA

TXIKIA -ERTAINA



AZALPENA

Irugurutzetako zentral hidroelektrikora 300 metro gorago dagoen Arrizurretako depositutik iristen da ura, ur hori zentraleko naberraino iristen da 300 m-ko jauzia eginik. Iragan mende hasieran eraiki zuten zentral hori, une honetan oso kontserbazio egoera kaskarrean dago, eta ezinbestekoa da hura berritzea.

Aurreko hamar urteko Planean hiru fase planteatu ziren Zentrala berritzeko. Fase horietatik bi burututa daude dagoeneko: berritu egin dira zentralaren sarrerako giltzen ganberako instalazioak eta berritu egin dira ura ekartzeko eroaleak. Hirugarren fasea dago egiteko: zentraleko eraikina berritzea.

2012ko maiatzean idatzi zen "Uraren Interpretazio Zentroa Irugurutzetan" Aurreproiektua. Horren arabera, Irugurutzetako zentraleko egungo eraikina berrituko zen, Uraren Interpretazio Zentro baten moduko museo bat eraikiko zen zentralari atxikirik, eta urbanizatu egingo zen ingurunea. Baina Eusko Jaurlaritzaren URari

kontsulta eginik Proiektua aurrera eramateko baimenaren inguruan, errekaaren ibilgutik kontaktzen hasita 5 metroko tartean ezin ezer egin zitekeela erantzun zuten, eta ondorioz ezin izan zen Proiektua burura eraman.

Fitxa honetan Irugurutzetako Zentral Hidroelektrikoko eraikina berritzea aurreikusten da, eta horretarako moldatu egin beharko litzateke aurrez idatzitako Aurreproiektua.

OBRAREN DESKRIBAPENA

Zentralako eraikina, zoladurak, estaldura bertikalak eta teilatua berrituko dira

OHARRAK

URAk eman beharreko baimena tramitatu beharko da

HOBKUNTZAK IRUSTAKO ZENTRAL HIDROELEKTRIKOKO MAKINERIAREN ERRENDIMENDUAN

JARDUERA ESPARRUA

Energia

GARAPEN MAILA

Makina aldatzeko Proiektua idatzi behar da

KALKULATUTAKO AURREKONTUA

490.000 euro (BEZik gabe)

ADMINISTRAZIOA TRAMITAZIOA

Beharrezkoa da

LEHENTASUNA

AZALPENA

I., II. eta III. multzo hidraulikoetako makinaren errendimendua hobetu daiteke, urteetan izan duten erabileraren ondorioz gastatu egin direlako. Konponketaren helburua da haien errendimendua handitzea.

Exzitatrizen elektronikak hobetu egingo du makinaren erregulazioa eta energia errektiboa zuzenduko da.

Asmoa da IV. makina aldatzea eta errendimendu handiagoko bat jartzea, turbinatik pasa daitezkeen emariak gehiago aprobetxatu ahal izateko.

OBRAREN DESKRIBAPENA:

I., II. eta III. multzo hidraulikoak konpontzea
Exzitatrizen elektronika inplementatzea
IV. makina aldatzea

OHARRAK

--

TXIKIA



